

Diru-Iturriak

Gure elkartean, saio bakoitzeko prezioa, 10 eurokoa izango da. Hori kontuan hartuta, familiei galdetu ondoren, esan genezake, eskaintzen ari garen zerbitzuen truke, familiak 10 euro/orduko ordaintzeko prest egongo direla. Saioengatik ordaintzeko orduan, hainbat modutan ordaintzeko aukera izango dute, besteak beste: esku diruaz, kreditu-txartelarekin edota transferentzia bitartez.

Ordaindu beharreko kantitate hau, nahiz eta haur bakoitzak behar zehatz batzuk izan arren, denentzako berdina izango da. Egia da, haur bakoitzak behar desberdinak izango dituela, baina horrek ez du baldintzatuko ordaindu beharko duten diru kopurua. Onena, prezioa haur guztientzat berdina izatea dela erabaki dugu, gainera gure ustez, prezioa nahiko eskuragarria izan daiteke familia eredu gehienentzako. Baina horrela eta guztiz ere, diru kopuru hori ordaintzeko zailtasunak dituen familiaren bat gugana etortzekotan, prezioa horrela zehaztuta dagoen arren, moldatzeko aukera egongo litzateke. Hau da, laguntza edo erreztasun batzuk eskeiniko genizkioke familia horri, bere haurrak ere gure zerbitzuetaz gozatzeko aukera izan dezan.

Horretaz gain, hasiera batean, gure erakundeak ez ditu diru-sarrerarik edukiko, galerak baizik eta erakundea martxan jarri ahal izateko guk gure kapitala jarri beharko dugu, hau da, inbertsio bat egin. Hasierako galera horiek, hau da, guk jarritako kapital hori pixkana berreskuratuko dugu, Udalak finantziatuko gaituelako.

Udalak, gure kapitalaren ehuneko handi bat finantziatuko du eta geratzen den ehuneko funts pribatuetatik lortuko dugu. Hau da, Udalak %90 a finantziatuko du eta beste %10a funts pribatuetatik aterako dugu.

Horretaz gain, gure erakundeak izango dituen diru sarrera edo irabazi iturri nagusiak, hauek izango dira besteak beste: erakundean emango diren saioak eta egingo diren ekintzak, denda fisikoa eta baita online denda ere.